

140 lagunek hartu dute parte Informatikari Euskaldunen Bilkuran

UEUK ETA MIRAMON DIGITALEK ANTOLATU ZUTEN DONOSTIAN

Informatikan euskaraz jarduteak dakartzan arazo eta gorabeherak jorratu zituzten

IRUÑEA. Donostiako Teknologia Elkartegian burutu zen aurreko astean Udako Euskal Unibertsitateko Informatika sailak eta Miramon Digitalek antolatu zuten Informatikari Euskaldunen 5. bilkura. Bilkura honen xedea informatikan euskaraz jarduteak dakartzan arazo eta gorabeheraz jarduteaz gain, softwaregintzaren inguruko gaiak aztertzea izan zen. Antolatzaileak pozik gelditu dira emaitzekin, bai partehartzaileen kopuruaren aldetik (140tik gora) bai eta izandako edukinen maila jasoagatik ere.

Gai nagusia, oraingoan, Softwaregintza izan da: segurtasuna, lizentziak, software librea, eta alor honekin lotutako gaiak izan dira hizpide. Egun konputagailua oso zabaldua dago gure gizartean eta jendeak ordenagailua aplikazioen bidez erabiltzen du. Gaiaren garrantzia handia da beraz. Alde honetatik azpimarratu nahi izan dute antolatzaileak, hitzaldiek izan duten maila jaso eta etengabe aldatzen doan esparru honetan gaia kokatzeko izan duten prestaketa; bertan egon ziren informatikariak asko eskertu zuten gaiak agertzeko izan duten zorrotasun eta balio-garritasuna.

Bestetik, hizlariekin batera produktu desberdinak zuzenean aurkezteko aukera izan zituzten beren egileek. Besteak beste, Eleka, Elhuyar, Diana Teknologia, Code&Syntax eta NHBBZ enpresak egon ziren



Hainbat informatikarik ponentzietako bat entzuten dute Donostiako Teknologia Elkartegian. ARGAZKIA: UEU

beraien proiektuak aurkezten. Egile-erabiltzaile-aditu hirukoteak zuzenean harremanetan jartzea helburuetako bat izan zen.

Sustatzaileek ezin dutela egiago eskatu adierazi dute: "140 pertsona baino gehiagok hartu dute parte ekitaldi honetan. Bestalde, eta guretzat garrantzitsua dena, partehartzea handia eta dinamikoa izan da. Kontuan izan behar dugu, gai hauek egunerokotasun handikoak direla, eta nahiz eta denbora asko ez izan alde guztiak aztertzeke, lagin aberatsa izan dela uste dugu".

Bestetik, topaketa hauen xede nagusia informatikaren munduan euskaraz jarduten dutenek informazioa trukatu eta topagune bat edukitzea da, eta alde horretatik

ere, behar hori asetu dutela uste due antolatzaileek.

Sarrera hitzaldiaren ondoren, Alberto Silvak (UEU, New Media Publishing, I+G zuzendaria) web-zerbitzuak izan zituen hizpide. Era berean, aztergai izan ziren aplikazio informatikoen segurtasuna Liher Elgezabalen eskutik (UEU, eta segurtasuneko aditua): "Segurtasun erasoen portzentaia haundi bat softwareak dituen ahuleziaz baliatzen da. Hori dela eta, Software garatzaile eta programatzaileok gure produktuen segurtasuna bermatzeko arduratu dugu. Hortaz gaur egungo arriskuak jabetu eta programatzeko teknika eta metodologiak aztertzea beharrezkoa da erronka honi aurre egiteko", adie-

razi zuten.

Inguru-adimenari dagokionez, Mikel Larreak, Informatikan Doktorea azaldu zuenez, gizakiok "interfaze adimendun eta intuiziozko ordenagailuz" inguratuturik egongo gara, ordenagailu hauek eguneroko objektuetan era ikusezinean integraturik daudelarik. "Baina helburua lortzeko hainbat arloen elkarlana beharrezkoa da: komunikazioak, nonahiko ordenagailuak edo software arkitekturek, besteak beste".

Software-lizentzietan buruzko hitzaldia eskaini du eta ondoren, Software komertziala eta Software librearen inguruko mahainguru bat ere egin zuten gaian hainbat adituek. >D.N.

HIZKUNTZA > Erakundeen kudeaketan euskara sartzeari buruzko txosten bat argitaratu du clusterrak

Ezagutzaren Clusterraren *Euskara eta Kudeaketa* foroak *Euskara enpresaren kudeaketan: gakoak eta esperientziak* izeneko txostena argitaratu du. Txostenaren helburua kudeaketan euskara aztertzea eta haren balio erantsia erakustea da. Foroan parte hartu duten erakundeak (EiTB, Elhuyar, Eusko Jaurlaritza, Ikerlan, MCC eta EHU besteak beste) talde-lanean aritu dira honako gai hauen inguruan: euskararen balio erantsia, alderdi nagusiak euskara plan bati hasiera emateko orduan edo euskara erakunde batean sartzeta, bai eta eragile nagusiak eta existitzen diren baliabideak ere. Azken hamarkadatan asko izan dira euskararen erabilera normalizatzeko burutu diren lanak, baina lan horien eragina mugatua izan da lan-esparruan. >D.N.

MUSIKA SARIAK > Kepa Junkeraren 'Harrobiaz arro', euskal abestirik onena

Kepa Junkeraren *Harrobiaz arro* kantua irabazi zuen IX Premios de la Músicaren euskarazko abesti onenaren saria. Bebe eta Pablo de Lucia izan ziren gaueko irabazle nagusiak. Bakoitzak lau sari eman zituen. >D.N.

HIZKUNTZA > Eusko Ikaskuntzaren Batzarra Bilbon izango da azaroan

Eusko Ikaskuntzaren XVI. Biltzarraren azaroaren 29an eta abenduaren 1ean eta 2an egingo da Bilboko Euskalduna Jauregian, *Garapen Iraunkorra - IT. etorkizuna* izenburupean. Lehen egunean, duela urtebete baino lehenagotik Garapen Iraunkorrari buruz Diziiplina Anitzeko Plan Bereziko Lan Taldeak lantzen ari diren sei lan arloetako edukiei ekingo zaie. Lurralde eta bere baliabideen antolamendua eta kudeaketa, Osasuna eta ongizatea, Enpresa dinamismoa, Ekonomia eta fiskalitatea, Garraioak eta Energia dira aipatu sei lan arloak. >D.N.

FUNDAZIOAK > Elhuyarrek egoitza berria inauguratuko du datorren ostiralean

Garai berri bati emango dio hasiera Elhuyarrek datorren astean Usurbilen inauguratuko duen egoitza berriarekin. Elhuyar Donostiako ingeniari-talde batek sortu zuen 1972. urtean euskara eta zientzia uztartzeko xedearekin. Talde amateur haren helburua zientzia euskaraz gizarteratzea zen, eta haren lehenengo lanak itzulpen teknikoak egitea eta Elhuyar aldizkaria argitaratzea izan ziren. 2002an, fundazio bihurtu zen Elhuyar eta, orain, egitura berrantolatu eta Elhuyar Fundazioaren menpeko bi sozietate ere sortu dituzte: Elhuyar Aholkularitza eta Eleka Ingeniaritza Linguistikoa. >D.N.

EUSKARA > Maiatzaren 8an izango da Herri Urrats

Senperek datorren maiatzaren 8an hartuko du Iparraldeko ikastolen jai. Herri Urratsak bere 22. edizioa ospatuko du aurten *Urrats bizi, euskara bizi* lelopean. Aurtengo kantuarri Mixel Etxeparrearen jarri dio hitza eta Kepa Junkerak musika. Soinujole bilbotarrak gainera festa egunean izango da emanaldi bat eskaintzen. >D.N.

Gazte literatura baino haratago

REINEN "Oroimenean barrena" sailean heldu zaigu, Josu Zabaletak itzulita, Anne Franken egunkaria klasikoak. Lehen ere bazen zati bat euskaraz emana: De Rijk euskalari holandar ezagunak, liburuarri zirrargarria iritzita, Mari Karmen Garmendiarekin batera Egan aldizkarian argitaratu zuena (1962).

Hitlerren erregimenari ihesi, 1933an Holandara aldatutako familia judu bateko alaba gazteena zen Anne Frank. Hamahiru urte bete zituen egunean gurasoek egunkari bat oparitu eta han idazten hasi zen Anne gaztetxoak. Aste batzuk geroago, juduen jazarpena zela-eta, familiak ezkutuko etxe batean gordetzea erabaki zuen gerra amaitu arte. Horrela ezkutatuta egongo ziren, bi urte inguru, bost pertsona nagusi eta hiru gazte. Egunkarian bitarte horretako bizipenak jasotzen dira. Haurtzarotik heldutasunerako bidea egoera horretan egitea egokitu zitzaion neskatari. Hasieran gertaren aipamen soila egiten bada ere, egunkarian aurrera egin ahala,

ANNE FRANKEN EGUNKARIA

Kritikaria: A. Irizar.

Izenburua. Anne Franken Egunkaria **Idazlea.** Anne Frank **Urtea.** 2004 **Argitaletxea.** Erein **Itzultzailea.** Josu Zabaleta. **Orr.** 352. **Saila.** Oroimenean barrena. **ISBN:** 84-9746-219-X. **Salneurria.** 20,90 euro.

gogoetak sakonagoak dira, ikuspegiak zorrotzagoak. Egoeraren gogorak izango zuen eragina, zalantzarik gabe, Anneren bilakaeran, baina txundigarria da, hala ere, zer-nolako buru-argitasuna, kritikarako gaitasuna, ikasi-gosea eta heldutasuna erakusten dituen Anne gazteak. Aurkituko du batek baino gehiagok ikasbiderik.

Egunkarian idatzitakoak beretzat baizik ez ziren hasieran, baina 1944ko udaberrian erbesteko holandar gobernuko hezkuntza ministroak Ingalaterratik irratiz eginiko hitzaldi batek bultzatuta, argitaratzeko aukera ikusi eta ordu arte egunkarian jasotako oharra eta gutunak berridaztea erabaki zuen idazle gaz-



Anne Frank. ARGAZKIA: D.N.

teak. Lanari serio heldu eta hamar astean 324 orri solte idatzi zituen. Ezkutututakoak, norbaitek salatuta, 1944ko abuztuaren 4an atxilotu zituzten. Haien babesleek, ordea, aurkitutako testu guztiak gorde eta, urtebete geroago, zortzietatik bizirik geratu zen bakarrari eman zizkieten, Anneren aitari. Otto

Frankek, zalantza askoren ondoren, alabaren asmoa betetzea erabaki zuen. Horrela, jatorrizko bertsioa eta Annek berak egokitu eta zuzendua oinarri hartuta, hirugarren bertsio laburrago bat prestatu zuen. 1947ko argitalpen hura izan zen liburu hau mundu osoan zabaltzeko balio izan zuena. Orain heldu zaigun bertsioa 1991n prestatu zen, eta orain arte ezagutzen zen testua baino laurden bat luzeagoa dugu. Gainera, 1998an, ezagutzen ez ziren egunkariaren bost orrialde azaldu ziren, eta zati horiek eragindako aldaketak ere jasota geratu dira argitalpen honetan.

Josu Zabaletak euskara egokian, eta sinesgarrian -ez da meritu txikia-, eman du Anneren egunkaria. Itzulpenarako, ez da jatorrizkotik abiatu, nederlandarazkotik alegia; beste hiru itzulpen hartu ditu oinarri: ingelesezkoa, frantsesezkoa eta gaztelaniazkoa. Ez da samurra izaten, ez, horrela lan egitea, baina bai komenigarria ezin bada jatorrizkotik zuzenean itzuli. Egokia da, hala-kotian, erabilitako itzulpenak aipatzea, honetan egin den bezala. Aitzakia gutxi, beraz, gazte literatura-ren mugak gaintzen dituen klasiko honek. >A. IRIZAR